

BRIDGESTONE HISPANIA MANUFACTURING SL-REN, VALLE DEL NERVIÓN CRUZ ROJA–NERBIOIKO HARANA GURUTZE GORRIAREN ESKUALDEKO BATZORDEAREN ETA BASAURIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HTZARMENA, BEHARRIZAN EGOERAN DAUDENEI ELIKAGAIK HORNITZEKO.

Basaurin, 2020ko Irailaren 8(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

BATETIK: Asier Irigorri Basaguren Basauriko Udaleko alkate udalburua (Udalaren IFK: P-4801900-D), erakundearen izenean eta haren ordezkari gisa, Tokiko Araubideak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 b) artikuluan ezarritako eskumenak egikaritzuz eta egintza honetarako ahalordetuta egonik (ekainaren XX(e)ko XXXX/2020 Alkatetza Dekretu bidez).

BESTETIK: Elba Romero Soto, Valle del Nervión Cruz Roja – Nerbioiko Harana Gurutze Gorriaren Eskualdeko Batzordearen burua (elkartearen helbidea: Azbarren 2, 48970 Basauri; eta IFK: Q2866001G), erakundearen izenean eta haren ordezkari gisa, Gurutze Gorriaren Estatutuen 17.4 artikuluan ezarritako eskumenak egikaritzuz eta egintza honetarako ahalordetuta egonik.

ETA, AZKENIK: Sebastien Tranchant, Basauriko Bridgestone lantegiko Giza Baliabideetako burua, sozietate horren izenean eta haren ordezkari gisa (erakundearen IFK: B95922688; eta jakinarazpenetarako helbidea: Urbi z.g., 48970 Basauri), Bridgestonek egintza honetarako ahalordetuta.

Alderdiek egintza honetan jarduteko eta obligatzeko gaitasuna eta legitimazioa aitortzen diote elkarri, norik dagokion ordezkaritzan. Eta, horrenbestez, zera

ADIERAZTEN DUTE:

I- Osasunaren Mundu Erakundeak mundu mailako pandemiatzat jo du «COVID-19» izeneko birusaren agerraldien ondorioz sortutako egoera. Birus horrek kutsatzeko gaitasun handia du, eta hildako asko ere eragin ditu. Horren harira, alarma-egoera ezartzeari buruzko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua eman zuten, eta, gero, ekainaren 21era arte luzatu zuten. Horren ostean, ekainaren 9an, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazioko presako neurrien ekainaren 21/2020 Errege Lege Dekretua eman zuten.

II.- Aipatutako guztia gertatu aurretik ere, Udalak lankidetzan ziharduen hirugarren sektoreko irabazi-asmorik gabeko erakundeekin. Besteak beste, Udalak Elikagaien Bankuarekin lan egiten du, eta Gizarte Zerbitzuek beharizan-egoeran detektatutako norbanakoei elikagaiak banatzeko sortutako elkarteekin ere bai. Ordea, elikagaien banaketa hileroko egiten da, eta, pandemiak sortutako testuinguru berrian, orain ez dago elikagai nahikoa beharizan-egoeran egon eta premiazko arreta behar duten guztientzat.

III.- Berehalako arreta behar dutenen premiazko elikagai-beharizanari erantzuteko, Gurutze Gorria jakia banatzen ibili da beharizan-egoeran dauden

norbanako eta familiei. Horren ondorioz, erakundeari agortu egin zaizkio horretarako zeuzkan erreserbak, eta, orain, bere lana egiten jarraitu ahal izateko, sektore publikoaren laguntza behar du. Horren harira, Basauriko Udalak eta Gurutze Gorriak lankidetzahitzarmena sinatu zuten 2020/04/23an. Hitzarmen horri esker, Udalak elikagaien premia larria duten norbanako edo familiak identifikatu ahal ditu gizarte-zerbitzuen bitartez eta irizpide objektibo batzuen arabera, Gurutze Gorriak elikagaiak horni diezazkieten ahalik eta lasterren.

IV.- Beharrizan-egoeran daudenei elikagaiak hornitzea ez da berariaz tokiko eskumen gisa aurreikusten gizarte zerbitzuak arautzen dituen legeria autonomikoan. Ordea, Udalak eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartzen ez den beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango du, tokiko komunitatearentzat onuragarria bada, bikoiztasun-egoerarik sortzen ez bada eta erakundearen ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez bada (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 14.4 artikulua). Kasu honetan, ez da horrelakorik gertatzen, eta, beraz, Udalak, bere eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartu ez arren, jarduera, zerbitzu edo prestazioak garatu ahal ditu, baldin eta herritarren bizikaltatearen hobekuntza dakarren edozein jarduera-eremu antolatu eta kudeatzeko bada eta komunitatearen edonolako behar edo interesei erantzuten badie (2/2016 Legea, 16.1 artikulua).

V.- Bridgestone Hispania Manufacturing SLk, bere erantzukizun sozial korporatiboa baliatuz, lantegia dagoen udalerrian COVID-19 birusaren pandemiak sortutako beharrizan-egoera arintzen lagundu nahi du, posible duen neurrian. Horretarako, egoerak sortutako beharrizanei arreta emateko erakunde publiko eta pribatuekin lan egin nahi du, modu aktiboan; eta, hala, laguntza ekonomikoa eman nahi du, beharrizan-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuetarako.

VI.- Hori guztia horrela, alderdiek adostu dute Bridgestone Hispania Manufacturing SLren ekarpena ahalik eta gehien optimizatzeko modurik egokiena dela Gurutze Gorriak eta Basauriko Udalak lehenago sinatutako akordioa handitu, eta Bridgestone ere bertako kide izatea. Gurutze Gorriak eskarmentua dauka egoera sozialak kudeatzen; Basauriko Udalak baliabideak ditu, elikagaien beharrizana dutenen errealitate soziala ezagutzeko, eta Bridgestone Hispaniak baliabide materialak eta giza baliabideak hornituko ditu. Horrek guztiak COVID-19ak eragindako kalteak arintzen lagunduko du.

VII.- Euskal administrazio publikoek hitzarmenak eta lankidetzarako esparru-akordioak formalizatu ahal dituzte, besteak beste, erakundeen interes orokorreko jarduera sozialak egiteko, administrazio publikoek horrelakoak sustatzea egokitzen jotzen badute (6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa, 15.2 artikulua). Ildo horretatik, alderdiek LANKIDETZA-HITZARMEN hau egitea adosten dute, jarraian jasotako baldintzetan.

XEDAPENAK:

LEHENENGOA.- XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Bridgestone Hispania Manufacturing SLren, Valle del Nervión de la Cruz Roja–Nerbioiko Harana Gurutze Gorriaren Eskualdeko Batzordearen eta Basauriko Udalaren arteko lankidetz-esparrua finkatzea, arautzeko, batetik,

beharrizana duten norbanako eta familiei alarma-egoera amaitu ostean eta COVID-19aren pandemiaren eraginak iraun bitartean elikagaiak hornitzeko Bridgestone Hispania Manufacturing SLk egingo duen ekarpen ekonomikoa, eta, bestetik, ekarpen horren kontura emango den zerbitzuaren kudeaketa.

BIGARRENA.- BRIDGESTONE HISPANIA MANUFACTURING SL-REN EKARPEN FINANTZARIOA, ETA HORREN XEDEA.

Bridgestone Hispania Manufacturing SL-k SEI MILA ETA BOSTEHUN EUROKO (6.500 €) ekarpena egingo du hitzarmenaren xedea gauzatzeko.

Kopuru hori, osorik, elikagaiak erosteko erabili beharko du Gurutze Gorriak, ez beste edozein gastutarako (ez langileak kontratatuzko, ez kanpo zerbitzuatarako, ez hemen ezarritakoa ez den beste edozein xedetarako).

HIRUGARRENA.- ALDERDIEN BETEBEHARRAK.

Hitzarmen honen xedea gauzatzeko, alderdiek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

A. BRIDGESTONE HISPANIA MANUFACTURING SL-K

Bakarra.- Adierazitako ekarpenaren zenbatekoa sartzea, ahalik eta lasterren, Gurutze Gorriaren Eskualde Batzordeak adierazitako kontuan.

B. UDALAK

1. Elikagaien premia larria duten norbanako edo familiak identifikatzea Udal Gizarte Zerbitzuen bitartez, Gurutze Gorriak eta Udalak sinatutako hitzarmenean jasotako irizpideren baten arabera (lehenago aipatu da hitzarmen hori). Alegia, honako irizpide hauetako baten arabera:
 - a. DSBERik ez jasotzea.
 - b. DSBEa jasotzeko eskubidea aitortuta izanda ere, oraindik prestazio hori ez jasotzea.
 - c. DSBEa etenda edukitzea, hiru hilabete baino gehiagoz.
 - d. Une honetan bizirauteko inolako gaitasun ekonomikorik ez dutela aitortzen duten norbanako edo familiak izatea. Kasua hori denean, erreferentziazko gizarte-langileak, ahal den neurrian, egiaztatu egingo du hori horrela dela, eta interesdunak baliabide honetara bideratu izanaren arrazoiak jasotzen dituen txostena egingo du.
2. Gurutze Gorriari helaraztea, ahalik eta lasterren, elikagai-beharrizana duten norbanako eta familien behin-behineko zerrenda. Aurretiaz, baina, onuradunen datu pertsonalak tratatzeko adostasun informatua lortu behar da, telefonoz bada ere; eta dagokion funtzionarioak adostasun hori jasota utzi beharko du eginbide batean.

C. GURUTZE GORRIAREN ESKUALDEKO BATZORDEA

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa erabiltzea oinarrizko beharrianetarako elikagaiak erosteko, eta elikagai horiek hitzarmen honen xedeetara bideratzea. Posible den neurrian, gainera, jakiak herriko elikagai-dendetan erosi beharko dira, merkatuko prezioetan. Debeakututa dago elikagaiak erostea Gurutze Gorriari lotutako entitateen bidez edo erakunde horretako kargudunekin zerikusia duten enpresen bitartez.
2. Zerbitzua ez azpikontratatzeko.
3. Beste bide batzuetatik lor daitezkeen dirulaguntza edo laguntzak jarduera bererako ez erabiltzea (gastu bererako ekarpenak bikoiztu ez daitezten). Horrelakorik eskuratuz gero, Gurutze Gorriak horren berri eman beharko dio Udalari eta Bridgestone Hispania Manufacturing SLri berehala, eta dagokion zenbatekoa itzuli.
4. Udalari eta Bridgestone Hispania Manufacturing SLri zerbitzuaren martxaren berri ematea, haiek informazioa eskatu eta gero. Aipatutako sozietateari dagokionez, informazio osoa emango zaie (artatutako pertsonen kopurua, aldiak eta abar). Era berean, onuradunen intimitatea zainduko da; bereziki, beren datu pertsonalak.
5. Jasotako dirulaguntza zertan gastatu den azaltzea, legez eta erregelamenduz ezarritako moduan.

LAUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN GAINEKO KONTROL EKONOMIKOA, JARDUERA HORI GAINBEGIRATZEA, BERE JARRAIPENA EGITEA ETA IKUSKATZEA

Basauriko Udalak eta Bridgestone Hispania Manufacturing SLk diruz lagundutako jardueraren gaineko kontrol ekonomikoa egin ahalko dute, jarduera hori gainbegiratu ahalko dute eta bere jarraipen eta ikuskapena ahalko dute. Zehazkiago, Firestone Hispania Manufacturing SLk egindako ekarpenaren kontura erositako elikagaiei buruzko ziurtagiriak eskatu ahalko dizkio Gurutze Gorriari, edozein unetan.

BOSGARRENA.- JARDUKETA SUSTATZEA

Gurutze Gorriak berariaz adierazi beharko du egindako jarduera Bridgestone Hispania Manufacturing SLk egindako ekarpenari esker izan dela. Hala egin beharko du, Hitzarmen honetatik ondorioztatutako jarduketa guztietan eta edozein motatako euskarritan.

Era berean, euskararen normalizazioari buruzko araudian xedatutakoa betetzeko, erakunde onuradunak hizkuntza ofizial bietan emango du bere jarduketaren berri, eta, idatzizkoan, euskarazko pasarteak nabarmenduko ditu.

SEIGARRENA.- EKARPENA JUSTIFIKATZEA

1. Diruz lagundutako jarduera amaitzean, eta, edozelan ere, 2020/12/31 baino lehen, erakunde onuradunak agiri bidez justifikatu beharko du jasotako funtsak zertan erabili dituen.
2. Horretarako, honako hauek aurkeztuko ditu Bridgestone Hispania Manufacturing SLn:
 - a. Aurrera eramandako jardueraren memoria (zenbat lagun artatu dituzten, epeak, gorabeherak, etab.).

- b. Izandako gastuak banakatuta jasotzen dituen zerrenda.
 - c. Dirulaguntzarekin finantzatutako gastu guztien egiaztagiriak (jatorrizkoak zein kopia konpultsatua). Izan daitezke fakturak edo trafiko juridikoan horien pareko balioa duten dokumentuak.
3. Ekarpena Hitzarmen honetan adierazitako moduan justifikatu ezean, edo aski ez den justifikazioa eginez gero, jasotakoa itzuli beharko da, ekarpena egiten duen merkataritza-sozietateak aurreikusitako baldintzetan. Sozietate horrek, gainera, zenbatekoa erreklamatzeko egoki iriztitako akzioak egikaritu ahalko ditu.

ZAZPIGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEA

Batzorde mistoa eratuko da hitzarmenaren jarraipena egiteko eta berau betetzeari, ez betetzeari, interpretatzeari, aldatzeari edo azkentzeari buruz sor daitezkeen zalantzak aztertzeko. Batzorde hori eratuko dute alderdi bakoitzeko ordezkari bik. Udaleko Gizarte Ekintzako zinegotzia izango da batzordeburua (berak ezarriko du bileren egutegia), eta idazkaria, berriz, Gurutze Gorriak izendatuko du. Erabakiak aho batez hartuko dituzte.

ZORTZIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honek izaera zibila du. Izan ere, Udalak egingo duen bakarra izango da beharizan-egoeran daudenak identifikatzea: ez du baliabide gehigarririk bideratuko arretara (funts-ekarpena pribatua da, eta zerbitzua hirugarren sektoreko erakunde batek emango du). Beraz, ezin da administrazio-jardun edo –trafikoaren barruko administrazio-jardueratzat hartu.

Hartara, Hitzarmen honetatik ondorioztatutako eskubide eta betebeharrak honako hauen mende egongo dira: lehenik eta behin, Hitzarmen honetan ezarritakoa; eta, horren orde, Zuzenbide Pribatuaren arau orokorretan xedatutakoa.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau indarrean egongo da egindako ekarpena agortu eta haren justifikazioa Bridgestone Hispania Manufacturing SLn jasotzen den arte. Dena dela, epe hori amaitu aurretik, edozein unetan, sinatzaileek Hitzarmena denbora-tarte egoki batez luzatzea adostu ahalko dute, hori bidezkoa egiten duten salbuespenezko arrazoiak baldin badaude.

HAMARGARRENA.- INDARREAN SARTZEA

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den unean.

Hemen jasotakoarekin bat datozela agertzeko, alderdiek Hitzarmen honen kopia bi sinatzen dituzte nire aurrean, ondore bakarrarekin, goiburukoan adierazitako toki eta datan. Nik, Udaleko idazkari nagusia naizen honek, horren fede ematen dut.

Alkatea

Gurutze Gorria elkartearen lehendakariak

Bridgestone Hispania Manufacturing SL

Nire aurrean, behin-behineko idazkari nagusia